



Fantasiarazko eta Beldurrezko Zinemaldiaren XXV. Astea Hizkuntza erabileraren neurketa

1. SARRERA.....	2
2. METODOLOGIA.....	3
3. AHOZKO ERABILERA	4
3.1. Filmak	4
3.2. Ekitaldien ongi etorri eta aurkezpenak.....	5
3.3. Aurkezpen prentsurrekoak	7
3.4. Filmeen prentsurrekoak	8
3.5. Balorazio prentsurrekoa	8
3.6. Jendaurreko zerbitzuak.....	8
4. IDATZIZKO MATERIALA.....	9
4.1. Katalogo ofiziala	9
4.2. Programazio liburuxka	9
4.3. Euskaraz eskeintzen diren filmen programazio liburuxka.....	10
4.4. Eskuorriak, sarrerak, postalak,.....	10
4.5. WEBgunea	11
4.6. Sare sozialak.....	11
4.7. Prentsarako materiala	11
4.8. Errotulazioa	12
4.9. Argitalpenak.....	12
5. ERAKUSKETA ETA ANTZERKIAK	12
5.1. Erakusketak	12
6. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK	13

1. SARRERA

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, euskararen erabilera areagotzea ardatz duela, Donostiako aisialdian eragina duten ekintza nagusietan hizkuntza erabileraren neurketa egin ohi du: dFeria, Giza Eskubideen Zinemaldian, Aste Nagusian, Jazzaldian eta Zinemaldian hain zuzen. Hori dela eta, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astean azken urte hauetan bezala, aurten ere behaketa egin dugu.

Garrantzitsua da oso euskararen erabilera normalizatzea eguneroko jardunean. Era berean, gizarteari eskaintzen zaizkion aisialdirako kultur ekitaldietan euskaren presentzia areagotzea oso garrantzitsua da. Ostera ere, gogorarazi behar dugu euskara hizkuntza ofiziala dela Euskal Autonomi Erkidegoan eta, halaber, Donostiako udal ordenantzek euskarari ofizialtasun hau aitortzeaz gain, Udalak antolatutako ekintza guztietan lehentasuna izan behar duela esaten dutela.

Era berean, garrantzitsua iruditzen zaigu, gonbidatuak, beste lurralde batetatik datozenean, harrera protokolo bat egitea. Hau da, hiriaren errealitatearen berri ematea (hizkuntza, kultura eta lurraldetasunarena alegia).

Hau horrela, BAGERAk Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astean antolatzen diren jardueretan euskararen erabilera idatzia zein ahozkoa areagotzea du helburu; hau da, Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaren Astean euskararen presentzia normalizatzea.

2. METODOLOGIA

Azkeneko urte hauetan, 2002tik, urtez urte egin du BAGERA Elkarteak Zinema Astearen neurketa eta, beraz, datu guztiak aurrean izan ditugu neurketa egin eta ondorioak ateratzerakoan. Asteak bere gain hartzen dituen momentu guztiak neurtzen saiatu gara: filmen aurkezpenak, prentsaurrekoak, programazio aurrerapenaren txostena, filmez filmeko gida, kartelak etab. neurtu ditugu besteak beste.

Behaketa aurrera eramateko orduan, bagerakideen laguntza ezinbestekoa izan da, halere, elkartetik kanpoko kolaboratzaileak ere izan ditugu behaketa aurrera eramateko orduan.

Neurketa egiterakoan, hizkuntza erabilera 3 atal desberdinetan azaldu dugu eta kasu guztietan ele bitan egin zela adierazten dugunean, zehazki, euskaraz eta gaztelaniaz egin zela esan nahi dugu:

a) Ahozko erabilera: Filmak, ekitaldi nagusiak, prentsaurrekoak, film emanaldietako sarrerak eta aurkezpenak (sarrerak, ongi etorriko lehen hitzak bezala eta aurkezpena pelikulen xehetasunak ematerakoan) eta jendaurreko zerbitzuak aztertzen ditugu atal honetan. Zein hizkuntza erabiltzen den eta bakoitza zein neurritan erabiltzen den hartzen dugu kontuan.

b) Idatzizko materiala: Idatzizko material ugari izaten da Astearen. Antolakuntzaren argitalpenak (filmez filmeko gida, programazioaren aurrerapen txostena...), kartelak, webgunea, errotulazioak etab. izaten ditugu aztergai.

c) Erakusketak: Atal honetan Astearen baitan antolatzen diren erakusketetan egiten den hizkuntza erabilera neurtzen dugu.

3. AHOZKO ERABILERA

3.1. Filmak

Atal hau Zinema Astearen ekintzarik garrantzitsuena dela gogoan izan behar dugu. Aurten, asteak 35 film luze eman ditu, eta horietatik, 12k azpтитulua euskaraz izan dute, 1 euskaraz eta beste 1 euskarara bikoiztua izan da (%40). Bestalde, 46 labur eman dira eta horietatik 27 euskaraz azpidatzita izan dira (%58,70).

Aurten lehen aldiz, euskaraz azpidatzitako film luze bat proiektatu dute Antzoki Zaharrean. Orain arte, euskaraz eskaintzen ziren proiektzioak Victoria Eugenia Antzokian izaten ziren eta Asteko **programazio nagusia**, berriz, Antzoki Zaharrean (Asteak proiektatzen dituen film ofizial guztiak, Inaugurazio eta Amaierako ekitaldiak, lehiaketak ...).

Sailez-sail honakoak izan dira aurten eskaintako filmak eta euskarazko emanaldien kopurua:

- Film luzeen sail ofiziala: **Antzoki Zaharrean** proiektatu dituzten 21 filmetatik 1 izan da euskaraz azpiidatzia (aipatu bezala lehen aldia da Antzoki Zaharrean Sail Ofizialeko filma bat euskaraz azpiidatzia ikusi ahal izan dena. Filma japonieraz izan da eta euskaraz azpidatzia). **Victoria Eugenia** berriz, Antzoki Zaharrean proiektatutako Sail Ofizialeko 21 filmetatik 5 film ikusi ahal izan dira. 5ak euskarazko azpiidatziekin. Horretaz gain Sail Ofizialean lehiaketaz kanpo zegoen beste film luze bat proiektatu da, euskaraz. Sail ofizialeko film guztiak kontuan hartuta (22 film) 5 euskaraz azpidatzita izan dira eta bat euskaraz izan da (%27 hain zuzen).
- Film laburren sail ofiziala: 14 film laburretatik 14ak euskaraz azpidatzita izan dira. Hau da, %100ek euskarazko azpтитulua izan zuten. Filma guztiak Antzoki Zaharrean (gaztelaniaz) eta Victoria Eugenia (euskaraz) ikusi ahal izan dira. Beraz, guztira 28 emanaldi egon ziren, %50 euskaraz eta beste %50 gaztelaniaz.
- Estatuko film laburrei dagokienez, film eta emanaldien kopurua berdina izan zen. 8 emanaldietatik, bakarra ere ez euskaraz (%0).
- Animazio film laburren sail ofizialean, 10 proiektzioetatik bat ere ez euskaraz (%0).
- "Irudi Fantastikoa" erakusketa dela eta hiru film labur eskaini dira: Hirurak gaztelaniaz baina bik azpтитuluak euskaraz izan zuten(%66,67).

- "24 aste geroago" Zikloa: 8 film luze eta 12 film labur proiektatu zituzten ziklo honetan. Film luzeei dagokienez, 8 filmetatik 6 euskaraz azpidatziak izan ziren (%75) eta film laburrei dagokienez 12 filmetatik 11 (%91,67).
- Haurrentzako zinema: 2 film luze izan ziren ikusgai. Biak euskarara bikoiztuak (%100).
- Aurtengo ezusteko filma gaztelaniaz izan da (Mil gritos tiene la noche (1982). Ez du azpigiturik izan.

3.2. Ekitaldien ongi etorri eta aurkezpenak

Ongi etorri eta aurkezpenak aztertzerakoan, kontuan izan behar dugu ekitaldi batzuk film bat baino gehiagoren emanaldia direla (normalean, laburren bat lehenengo eta luze bat edo gehiago ondoren), eta gehienetan ekitaldi osoak aurkezpen bat izan ohi duela eta ondoren filmeko zuzendariak hitz egiten duela.

BAGERAK behatutako ekitalditatik, Antzoki Zaharreko aurkezpenak 14k izan dute aurkezpena (hasierako eta amaierako ekitaldiak barne). Aurtengo Zinema Astean ere, euskara ia aurkezpen guztietan erabili bada ere, aurkezpen gehienetan oso urria izan da erabilera. Victoria Eugenia berriz, guztiak euskaraz izan dira.

Inaugurazio ekitaldia "Días de Cine" TVEko programaren bideo batekin hasi zen (gaztelaniaz). Jarraian Miriam Cabezak egin zituen aurkezle lanak. Ele bitan egin bazuen ere, euskara eta gaztelania tartekatuz (hizkuntza bakoitzean informazio propioa), gaztelania gailendu zen nabarmen. Ondoren, Josemi Beltran aurkeztu zuen euskaraz eta Beltranek berdin egin zuen. Azkenik epaimahairen eta "Musarañas" pelikularen taldearen aurkezpena gaztelania hutsez izan zen.

Bukaerako sari banaketari Miriam Cabezasek eman zion hasiera euskaraz baina berehala gaztelaniaz jarraitu zuen. Josemik berriz, antolatzaileei eskerrak euskaraz eman zizkien eta jarraian sari banaketari hasiera eman zion euskaraz. Lehenengo bi sari banatu dira, "Film in San Sebastian" eta epaimahaiak eman zuena. Bi sari hauek banatzeko Donostiako Sustapeneko Film Comission saileko Lorea Hernandez aurkeztu zuen Josemik. Loreak bi eletan egin zuen bere parte hartzea, euskarari lehentasuna eskainiz. Ondoren SyFy saria banatzeko Josemik SyFy-eko partaide bat aurkeztu zuen (gaztelaniaz). Honek ere, saria banatu aurretik gaztelania hutsean hitz egin zuen. Jarraian izandako sari guztien aurkezpenak eta saridunen parte hartzea gaztelaniaz izan ziren. Bi kasutan ingelesa erabili zen eta itzulpenak gaztelaniara izan ziren.

Filmen aurkezpenari dagokienez, euskara (erabili den kasuetan) hasierako aurkezpenean erabili da. Ondoren filmen zuzendariak gaztelania egin dute gehien bat eta beste hizkuntza bat erabili denean (frantsesa edo ingelesa) gaztelaniara itzuli dute. Aurkezpen gehienetan gaztelania gailendu da nabarmen.

Dead Snow 2 filmaren aurretik 2000 *maniacos fanzinaren* aurkezpena egin zuen Josemi Beltranek gaztelaniaz.

Animaziozko film laburren lehiaketan egin zen aurkezpena gaztelania hutsez izan zen. Bai hasierako agurrean baita gonbidatuen aurkezpena zein beraien parte hartzea ere.

VHS Viral eta *In extremis* filmen aurkezpenak gaztelania hutsez izan ziren. Filmeko zuzendariak ingelesez egin zuten, itzulpena gaztelaniaz.

Rec4, *Pos eso* eta *Mil gritos tiene la noche* (ezusteko filma) filmen aurkezpenak gaztelaniaz izan ziren baita gonbidatuen parte hartzea ere.

Halloween gauean egin zuten mozorro lehiaketa gaztelania hutsez izan zen.

Scifiworld saioan Beltranek agurra euskaraz egin ondoren gaztelaniaz jarraitu eta *Sciworld* aldizkariko kide den Alvaro Pita aurkeztu zuen. Albarok saio honen aurkezpena egin zuen gaztelania hutsez.

Aux yeux des vivants filmaren aurkezpena bi hizkuntzetan egin zuen Josemi Beltranek, euskara eta gaztelania tartekatuz (hizkuntza bakoitzean informazio propioa eskainiz). Jarraian filmaren zuzendariak hartu zuen hitza frantsesez. Itzulpena gaztelaniaz egin zuten.

Estatuko film laburren lehiaketako aurkezpena bi eletan izan zen baina lau filmen zuzendarien parte hartzea gaztelaniaz izan zen. Azkeneko filma proiektatzeko arazoak egon ziren eta Josemi Beltranek gaztelaniaz eman zituen azalpenak.

"24 Aste geroago" film laburren aurkezpena euskaraz egin zuen Josemi Beltranek nahiko luze. *Duck Children* laburmetraiaren zuzendariak ingelesez eta itzulpena gaztelaniaz.

3.3. Aurkezpen prentsurrekoak

Atal honetan, Zinema Asteko ekimen ezberdinak aurkezteko egin diren prentsurrekoak hartu ditugu kontuan.

Uztailaren 8an, Victoria Eugenia Antzokiko Club Aretoan Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XXV. Astearen **kartela** aurkeztu zen. Era berean, ekitaldien lehenengo aurrerapena egin zen. Prentsurrekoan Jack Mircala (Kartelaren egilea) eta Josemi Beltran (Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Asteko zuzendaria) izan ziren. Beltranek aurkezpena ele bitan egin zuen (euskara eta gaztelania tartekatuz. Hizkuntza bakoitzean informazio propioa emanaz) eta jarraian Jack Mircalak hartu zuen hitza gaztelaniaz. Jarraian egin ziren galderak gaztelaniaz izan ziren. Bukatzeko Josemi Beltranek ekitaldien inguruko informazioa azaltzeko gaztelania eta euskara erabili zituen. Agurrean berriz, gaztelania gailendu zen.

Urriaren 17an, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XXV. Asteko **programazio** osoa aurkeztuko zen Victoria Eugenia Antzokiko Club Aretoan. Prentsurrekoan Nerea Txapartegi (Udal Gobernuako Kultura eta Euskara arduraduna), Clara Montero (Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko zuzendaria), Alberto Rodriguez (Kutxabank Babesletzak Departamentuaren arduraduna) eta Josemi Beltran (Donostia Kulturako Zine arduraduna) izan ziren. Nerea Txapartegik eman zion hasiera prentsurrekoari euskara eta gaztelania tartekatuz (hizkuntza bakoitzean informazio propioa eskaini zuen). Jaurlaritzako ordezkaria Clara Monterok ere euskaraz lehenik eta ondoren gaztelaniaz egin zuen. Ondoren Nerea Txapartegik hitz eman zion Kutxako ordezkaria den Alberto Rodriguezi, euskaraz hasi eta ondoren gaztelaniaz egin zuen (erraztasun handiagoa gaztelaniaz). Azkenik, Josemi Beltranek hartu zuen hitza euskaraz eta gaztelaniarekin tartekatuz (informazio propioa eskaini zuen hizkuntza bakoitzean). Galdera tartean lehenengo galdera euskaraz egin zen eta euskaraz erantzun. Ondoren beste batek bi galdera egin zituen gaztelaniaz eta gaztelaniaz erantzun ziren.

Urriaren 22an, **Monsterchef** saioaren eta Munstroak albumaren aurkezpena egin zen. Prentsurrekoan Edorta Lamo (A Fuego Negro), Alfonso Reiriz (Super Amarako Marketing arduraduna), Axelcasas eta Josemi Beltran (Donostia Kulturako Zinema arduraduna) izan ziren. Beltranek eman zion prentsurrekoari hasiera euskara eta gaztelania tartekatuz (hizkuntza bakoitzean informazio propioa emanaz). Jarraian Reirizi eman zion hitza gaztelaniaz. Alfonso Reirizek gaztelaniaz egin zuen bere parte hartzea. Ondoren, Beltranek, Edorta Lamo aurkeztu zuen. Edortak sarrera euskaraz eta gaztelaniaz egin zuen. Berarekin batera Axelcasasek hartu zuen gaztelaniaz eta hemendik aurrera prentsurreko osoa gaztelaniaz jarraitu zuten. Agurra ere gaztelaniaz izan zen.

Urriaren 29an, "**Euskadi Fantastikoa X: Deisign**" erakusketaren aurkezpena izan zen. Bertan izan ziren Dei Gaztelumendi (Deisign) eta Iñaki G.

Holgado (erakusketaren komisarioa). Beltranek sarrera eta aurkezpena euskaraz egin zituen eta jarraian Iñakik hartu zuen hitza gaztelaniaz. Deik Gaztelumendik aldiz euskaraz eta ondoren gaztelaniaz egin zuen bere parte hartzea. Beltranek lehen galdera euskaraz egin zien eta erantzuna euskaraz egin zuten. Hortik aurrera galdera guztiak gaztelaniaz izan ziren eta erantzunak ere gaztelaniaz.

3.4. Filmetako prentsaurrekoak

Urriaren 24an, Victoria Eugenia Antzokian (Klub Aretoa), Musarañas filmaren prentsaurrekoa egin zen. Bertan Esteban Roel, Juanfer Andres (zuzendariak), Macarena Gómez, Nadia de Santiago (aktoreak), Kiko Martinez eta Carolina Bang (ekoizleak) izan ziren. Beltranek sarrera eta aurkezpena euskaraz egin ondoren gaztelania izan zen prentsaurreko osoa.

Urriaren 27an, Victoria Eugenia Antzokian (Klub Aretoa) Joxean's hil eben filmaren prentsaurrekoa izan zen. Bertan Beñat Iturrioz eta Xabier Padin (zuzendariak) izan ziren. Beltranek euskaraz aurkeztu zituen eta jarraian Beñatek euskaraz egin zuen bere parte hartzea. Beltranek gaztelaniaz laburpen bat egiteko eskatu zion. Ondoren euskaraz jarraitu zuten eta kazetari batek gaztelaniaz ea egin zezaketen galdetu zien. Berriz ere laburpen bat egin zuten. Agurra euskaraz izan zen.

Jarraian "2000 maniacos" fanzinearen prentsaurrekoa izan zen Manolo Valenciarekin (zuzendaria). Beltranek sarrera euskaraz egin ondoren gaztelaniaz izan zen prentsaurreko osoa.

Urriaren 28an, V/H/S Viral filmaren prentsaurrekoa izan zen Victoria Eugenia Antzokian (Klub aretoa). Bertan Justin Benson & Aaron Moorhead (zuzendariak) izan ziren. Beltranek ohi bezala sarrera eman zion prentsaurrekoari hurrengo eguneko programazioa euskaraz emanaz. Jarraian gaztelaniaz aurkeztu zituen mahaikideak. Bi partaideek ingelesa erabili zuten eta itzulpenak eta galdera guztiak gaztelania hutsez izan ziren.

3.5. Balorazio prentsaurrekoa

Astearen balorazio prentsaurrekorik ez da egin. Balantzea posta elektronikoz jaso dugu prentsa ohar baten bidez, euskaraz.

3.6. Jendaurreko zerbitzuak

Jendeari erantzuteko zerbitzuetan nolako harrera jaso ahal izan dugun neurtu nahi izan dugu.

Hainbat ekitalditan aretoen sarreretan zeuden langileekin euskaraz hitz egin ahal izan dugu, hala ere gehienetan, lehenengo hitza gaztelaniaz izan arren. Bestetik, Antzoki Zaharreko barran zeuden bi gazteak euskaraz ez

zekiten arren ulermen maila nahikoa zuten euskaraz eskatu ezkeror zerbitzatzeko.

4. IDATZIZKO MATERIALA

Oro har Asteko antolakuntzari dagokion idatzizko materiala ele bitan edota hiru eletan idatzirik dago.

4.1. Katalogo Ofiziala

“Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren XXV. Astea”-ren katalogo ofizialean, astean zehar izango diren film eta bestelako ekintzei buruzko informazioa azaltzen da 114 orritan. Azalean Astearen kartela azaltzen da hiru eletan. Lehenengo orrian, babesle eta laguntzaileen logotipoak ageri dira eta azpian Zinema Astearen harremanetarako informazioa azaltzen da. Egoitzaren helbidearen kalea, helbide elektronikoa eta web orria gaztelaniaz (Reina Regente, 8-4º, cinema_cinema@donostia.org eta www.sansebastianhorrorfestival.com). Hurrengo orrian, erakunde ezberdinei eskerrak emateko orrialde bat dago, honen beheko aldean, Donostia Kulturaren egoitzaren helbidea eta Zinema Asteko lantaldearen fitxa teknikoa daude. Egoitzaren helbidea gaztelaniaz azaltzen da baina fitxa teknikoaren izenak euskaraz (beste urteetan gaztelaniaz agertzen ziren). Jarraian, epaimahaiari buruzko informazioa dago hiru eletan (euskaraz hizki beltzez lehenengo, gaztelaniaz grisez bigarrenik eta azkenik hizki beltzez ingelesez). Hurrengo orrialdeetan, filmei buruzko informazioa dakar hiru eletan eta izenburua jatorrizko hizkuntzan ageri da. Alboan datorren fitxa teknikoa ere hiru hizkuntzetan dago. Gainontzeko ekintzei buruzko informazioa ere hiru eletan dago.

Informazioaz gain, hainbat iragarki eta filmen kartel daude. Filmek kartelak 12 izan dira, 9 gaztelaniaz, 2 ingelesez eta 1 hizkuntzarik gabea. Honetaz gain, 14 iragarki argitaratu dituzte 4 bi eletan (Monsterchef, Irudi Fantastikoa, Super Amara eta Bites logos), 1 euskara hutsez (Euskadi Gaztea), 1 testua gaztelaniaz baina helbidea euskaraz (Rec grabaketak), 1 ingelesez eta beste 1 hizkuntza gabea.

4.2. Programazio liburuxka

Informazio guztia bi eletan idatzita dago (euskaraz hizki beltzez eta gaztelaniaz hizki grisez).

Horretaz gain, hiru iragarki daude, bata euskaraz (Kutxabank), beste biak bi eletan (Okendo K.E eta Monsterchef).

Liburuxkaren erdian, egitarau laburtua dakar taula batean. Antzoki Zaharreko programazioan filmek izenak berezko hizkuntzan eta testu txikiak bi eletan. Victoria Eugeniako programazioan berriz, filmek izenak euskaraz hizki

lodiz eta ondoren berezko hizkuntzan hizki txikiz. Azkenik, Kresala Zineklubaren egitarauan, filmen izenak gaztelaniaz.

4.3. Euskaraz eskaintzen diren filmen programazio liburuxka

Asteaz zehar euskaraz eskaintzen diren filmetarako 8 orriko programazio liburuxka euskara hutsez dago.

4.4. Esku orriak, sarrerak, postalak, cd-ak...

Atal honetan Zinema Astearen inguruan sortzen den beste material idatzia biltzen dugu, kontuan izanik hau dela jende gehienarengana iristen den materiala. Eskuratu ditugun esku orri gehienak euskaraz eta gaztelaniaz idatziak daude (euskarak lehentasuna duelarik). Baten bat ingelesez edo frantsesez jaso ditugu, betiere euskarari lehentasuna emanaz. Donostiako Sustapeneko San Sebastian Film Comission-en esku orria adibidez, ingelesak lehentasuna duen arren, ondoren euskaraz idatzita dago eta azkenik gaztelaniaz. Monsterchef saioko esku orria, alde batetik euskaraz, eta bestetik gaztelaniaz.

Beste zenbait:

- Akreditazio txartela, alde batean zein bestean agertzen den informazioa hiru eletan dago. "Akreditazioa" izena, euskaraz, beste hizkuntzetan baina nabariago idatzia dago (hizki handiagoan eta kolore beltzean).
- Antzokiko sarreran kartel handi bat jarri dute film luze eta laburren puntuaketak jartzeko, euskaraz lehenengo eta gaztelaniaz ondoren idatzia dago.
- Mozorro lehiaketarako kartela ere bi eletan zegoen, euskarak lehentasuna zuelarik.
- Erakusketak iragartzen dituzten postalak ele bitan daude.
- Antzokiko tabernan prezioen taula berriz, gaztelaniaz.
- Lurra bustita zegoela iragartzen zuen euskarria, ingelesez eta gaztelaniaz.
- Amaierako ekitaldian sariak banatzerako garaian, Antzokiko pantailan sarien izena eta sarituaren filmaren izena ikus zitezkeen; sariaren izena lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelaniaz idatziak. Filmaren izena berriz, jatorrizko hizkuntzan.
- Bukaera festarako gonbidapen txartela bi eletan dago baina Bataplanen helbidea gaztelania hutsez dago eta festara joateko argibidea hiru eletan

badago ere, euskaraz gramatikalki ongi dagoen arren, itzulpena ez da berdina eta ez da berdin ulertzen: "*Sarrera beharrezkoa izango da sartzeko / Imprescindible presentar la invitación en la entrada / The invitation will be required*".

4.5. WEBgunea

Aurtengo webgunean, beste urtetan bezala, lehenik hizkuntza aukeratzeko pantaila agertzen da, sartu (euskaraz), entrar (gaztelaniaz) eta enter (ingelesez), aipatutako ordenan. Informazio guztia hiru hizkuntzetan eskuratzeko aukera ematen du. Bestetik, bi hutsune topatu ditugu, iazko berdinak. Web orriaren helbidearen izena (www.donostiakultura.com/terror/2014), harremanetarako helbidearen datuak (Teatro Victoria Eugenia, Reina Regente 8, 4ª).

Nekrogune ekimenak ere webgunea du (www.nekrogune.com) eta informazioa bi hizkuntzatan irakurri daiteke (euskaraz edo gaztelaniaz. Aukeratzen den hizkuntzaren arabera).

4.6. Sare sozialak

Sare sozialen kasuan, Zinema Astearen facebookean antolakuntzatik sartutako informazio testu gehienak euskaraz irakurri ahal izan ditugu.

Twitterren, berriz, gaztelaniaz informazio gehiago sartu da euskaraz baino.

Flickr-en sartutako argazki guztien oinak euskaraz eta ondoren gaztelaniaz idatziak izan dira.

Nekroguneren kasuan aldiz, gaztelania gailentzen den arren berri asko euskaraz sartu dira.

4.7. Prentsarako materiala

Prentsurrekoetan antolakuntzatik banatutako prentsa ohar guztiak euskaraz zein gaztelaniaz zeuden.

Prentsari banatutako cd-an karpeten izenak ele bitan daude.

Bestetik, posta elektronikoko bidez jasotako prentsa oharretan, informazioa euskaraz jaso dugu. Antolakuntzako prentsa arduradunarekin zuzenean izan ditugun mezu trukaketak, euskaraz egin izan ditugu.

4.8. Errotulazioa

Zinema aretoetako edota erakusketa tokietako eta bulegoetako ateetan ipinitako ohar edo txartelak ele bitan ikusi ditugu.

4.9. Argitalpenak

Aurten 3 argitalpen izan dira: "2000 maniacos" magazina (gaztelaniaz), "Munstroak" albuma (bi eletan) eta "Verlian eta talisman galdua" liburuxka (bi eletan) hain zuzen.

5. ERAKUSKETA

5.1. Erakusketak

Zinema Astearen inguruan egon diren lau erakusketak behatu ditugu:

- "Abenturak ganbaran Jiri Bartarekin" erakusketan kanpoko panela euskaraz (hizki lodiz) eta ondoren gaztelaniaz zegoen. Erakusketa gelan jarri zuten panel handian ere, informazioa euskaraz eta gaztelaniaz idatzita zegoen (ezkerreko aldean euskaraz eta eskuinekoan gaztelaniaz).
- "Subterfugeren erdira bidaia" erakusketan, erakusketaren inguruko informazio panelak bi eletan zeuden baita txartel informatibo guztiak.
- "Euskadi Fantastikoa X" erakusketarako sarreran jarritako kartel nagusia ele bitan zegoen (euskarak lehentasuna izanik: hizki lodiz) Erakusketa aretoan jarritako panel nagusiko izenburuan ere, euskarak lehentasuna izan du (hizki handiagoan idatzita). Testua euskaraz ezkerreko aldean eta gaztelaniaz eskuin aldean. Jarritako beste informazio paneletan eta argazki oinetan ere, elebitasuna mantendu da.
- "Metropolis" erakusketan jarritako euskarri guztiak bi eletan izan dira. Euskarak lehenetsiz.


6. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK


Orain arte azaldutako datuak aztertuz, atalez atal balorazio orokor bat egingo dugu jarraian.

Ahozkoan eta film luzeetan erabilitako hizkuntzari dagokionean Sail Ofizialeko filmetan iazko kopuruarekin alderatuta, euskaraz azpiidatzita edota bikoiztutako film bat gehiago izan da (22 filmetatik 5 azpiidatziak izan dira eta 1 euskaraz izan da, hain zuzen). Aldaketa nabariena, txostenean aipatu bezala, Antzoki Zaharrean izan da. Aurten lehen aldiz, euskaraz azpiidatzitako film luze bat proiektatu da (berezko hizkuntza japoniera eta euskarara bakarrik azpiidatzia, "Killers"). Orain arte, euskaraz eskaintzen ziren proiektzioak Victoria Eugenia Antzokian izaten ziren eta Asteko "programazio nagusia", berriz, Antzoki Zaharrean gaztelaniaz. Horretaz gain, "24 egun geroago" zikloaren film laburrak ere euskaraz azpiidatziak ikusi ahal izan dira Antzoki Zaharrean (12 film laburretatik 11). Ziklo honetako film luzeei dagokienez, 8 film luzeetatik 6 euskaraz azpiidatziak izan dira (%75a).

Film laburretan berriz, proiektatu diren 47 filmetatik 27 izan dituzte euskarazko azpitoluak (aurten %57,45a, iaz %42,42a). Azken urteetan bezala, sail ofizialean lehiaketan parte hartutako filma guztiak euskaraz azpidatziak izan dira. Estatuko film laburrei eta Animazio film laburren sail ofizialari dagokienez, ez da euskararen presentziarik izan eta Irudi Fantastikoa erakusketa dela eta proiektatutako 3 filmetatik 2 izan dira euskaraz azpiidatziak (%66,67).

Aurtengo Beldurrezko eta Fantasiazko Zinema Astean beraz, iazkoarekin alderatuta, euskararen presentzia areagotu da (bai film luzeei dagokionez baita film laburrei dagokionez ere). Hona hemen urtez urteko bilakaera grafikoa erakusten duten bi grafiko.





Zinema Asteko egunez eguneko filmen aurkezpenei dagokienez, Antzoki Zaharrean egin diren aurkezpen gehienetan ez da euskararen presentzia bermatu. 10 aurkezpenetatik 5 aurkezpenetan erabili da. Jarraian gonbidatu gehienek gaztelaniaz egin dute eta beste hizkuntza batean egin dutenean gaztelaniara itzuli egin da. Victoria Eugenia Antzokiko aurkezpenak berriz, euskara hutsean izan dira.

Ekitaldi nagusietan, Inaugurazio eta Amaierako ekitaldietan, hasierako ongi etorri eta sarrera ele bitan egin bada ere, ondoren gaztelania nagusitu da.

Urtero egiten den mozorro lehiaketan epaimahaikide, lehiakide zein aurkezlearen arteko elkarrizketak gaztelaniaz izan dira.

Prentsaurrekoei dagokionez, aurkezpen prentsaurrekoetan eta filmen aurkezpenetan egin den erabilera ezberdina izan da. Aurkezpen prentsaurrekoetan bi eletan egin da baina filmen prentsaurrekoetan gaztelania gailendu da eta gonbidatuek euskara zein gaztelania ez den beste hizkuntza erabili duenean itzulpena gaztelaniara egin da beti.

Azkenik, Jendeari erantzuteko zerbitzuetan lehen hitza gaztelania izan ohi da eta Antzoki Zaharreko tabernan zeuden bi langileak euskaraz egiteko gaitasunik ez zuten.

Idatzizko materialari dagokionez, antolakuntzak kaleratzen duen materialean elebitasuna mantentzen da (katalogo ofizialean, programazio liburuxkan, programazio taulan, prentsarako dossierretan, etab. ...). programazio liburuxkan filmen testu laburrak ez dira katalogo ofizialean

agertzen diren testuak eta irakurterrazagoak dira. Tabernetako prezioen euskarria berriz, gaztelera hutsez zegoen.

Web orrian ere, informazioa guztia euskaraz irakur daiteke baina urteroko bi hutsune mantentzen dira oraindik: web orriaren helbidea bera (www.donostiakultura.com/terror/2013), harremanetarako helbidea (Donostia Kultura, Teatro Victoria Eugenia, Reina Regente 8, 4ª 20003 Donostia).

Sare sozialetan, Beldurrezko eta Fantasiazko Zinema asteko facebookean antolakuntzatik bi hizkuntzak erabili dira era nahiko orekatuan. Nekroguneko zein antolakuntzako twitterrean berriz, gaztelania gailentzen den arren berri asko euskaraz sartu dira.

Erakusketei dagokienez, erakusketen kanpoko pankarta handietan zein barruko informazio panel eta argazki oinetan elebitasuna bermatu da.

Azterketa orokorrean ikusita, idatzizko material eta euskarrietan elebitasuna mantentzen den bitartean, ahozko erabileran ez dela nahikoa uste du BAGERA Elkarteak.

Beraz, BAGERA Elkarteak ondokoa proposatzen dio Zinema Asteko antolakuntzari:

Filmei dagokionez, euskarak leku zabalago baten beharra duenez, gutxienez, aurreko urteetako emanaldi kopurua handitzen joatea proposatzen dugu, eta euskarazko emanaldiak handitzen joatea Antzoki Zaharreko proiektioetan.

Ekitaldi berezietan ere, euskararen erabilera areagotu behar da. Euskararen presentzia oso txikia jarraitzen duelako izaten. Gainera, ekitaldi hauetan, aurkezlea euskalduna izan ohi da eta horrek aukera ematen du euskararen normalizazioari begira aurrerapausoak emateko (sari banaketan, mozerro lehiaketan, hasiera eta amaierako ekitaldietan kasu). Horretaz gain, filmen aurreko aurkezpenetan gonbidatua beste hizkuntza batean hitz egiten duenean itzulpena euskaraz eta gaztelaniaz tartekatzea.

Zinemaldiaren aurretik egiten diren prentsaurrekoetan euskara gaztelaniaren neurrian erabiltzea. Gonbidatuak beste hizkuntza batean egiten dutenean itzulpena egiterako orduan euskara eta gaztelania tartekatzea. Moderatzaileak galderak egiten dituen euskaraz egitea.

Bestetik, Zinema astean zehar jendaurreko zerbitzuko langileei hizkuntza irizpideak zehaztea (lehen hitza euskaraz egitea, publikora lan egiten dutenak euskaraz dakitela bermatzea, ...).

Hau horrela, antolakuntzak badaki, bide horretan BAGERA Elkartearen laguntza behar izanez gero, beti prest izango gaituela.